



Familia bat etxegabetu dute Bilbon

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/05/2025

Emakume bat eta bere hiru seme alabak etxegabetu dituzte eta emakumea anbulantzian artatu behar izan zuten.

AZET Etxebizitza Sindikatuak jakinarazi zuenez, emakume bat eta bere hiru seme alabak etxegabetu zituzten atzo Solokoetxen(Bilbo). Dirudienez, emakumea anbulantzian artatu behar izan zuten, etxegabetzea gauzatzen ari zirela. Etxebizitza sindikatuak salatu duenez, Bilboko Udalak ez die inolako alternatibarik eskaintzen, adingabeak egon arren. Horregatik, etxegabetzearen aurrean, alternatiba duina exijitu du etxebizitza sindikatuak.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/familia-bat-etxegabetu-dute-bilbon